

KOSTU-EGITURA

Su ta ke-k hainbat kostu ditu, bi motatakoak: kostu finakoak eta kostu aldakorak.

Hasiera batean, inbertsio gisa, enpresak hainbat gastu izango ditu, behin behinekoak. Hau da, behin ordaintzarekin, ezustekorik izan ezean, denbora luzez berriz ordaindu beharko ez direla. Horiek hasierako patenteak (hasierakoak hura sinatzean 2 urteko iraunpena izango baitute, baina epea amaitzean kostu finko bihurtuko dira, urtero berritzeko ordainduz), teknologia (informazioa prozesatzeko ekipamenduak), bulegoko materiala, altzairuak eta administrazio-jarduerak (agiriak, burokrazia...) izango dira.

Patenteak: 300€

Teknologia: ordenagailua + monitorea + sagua + teklatura, 700€

Bulegoko materiala: papergintza (papera, oharak, gutun-azalak, aurkezpen-txartelak...), boligrafoak, arkatzak, karpetak, artxibategiak, mahaigaineko antolatzaileak, grapagailuak, grapak, klipak, txintxetak, zuzentzaileak, zinta itsaskorra, guraizeak, ebakitzailak, post-it, ohar itsaskorrak, zigiluak, tinta, kalkulagailuak eta agendak, 300€

Altzariak: Bulegoko mahaietarako 4 aulki, bakoitza 75 eurotan, guztira 300€. 4 aulki bilera-geletarako, 45€ bakoitza, 180€ guztira. 4 mahai bulegorako, bakoitza 200 €-tan; guztira, 800 €. Bilera-gelarako mahai 1, 400 €-tan. Sofa bat bulego bateko itxarongelarako, 650€

Administrazio-jarduerak: 3.000€

Izendapenaren ziurtagiri negatiboa: 13,52€

Notarioritza: 300€


Estatutuen sinadura: 40€

Ziurtagiri digitala: 14€

Enpresak eratzeko aholkularitza espezializatua: 800 €

HASIERAKO KOSTUAK	
Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
Patenteak	300
Teknologia	700
Altzariak	650
Administrazioa	3000
GUZTIRA	4650


HASIERAKO KOSTUAK



Beste alde batetik, kostu finkoei dagokionez, lokala (700€), webgunearen hostinga (6€) eta soldatak (1500€, 12 pagatan, 4 langile: 6000€) egongo dira. Hauek beti berdin mantentzen dira, unitateen arabekoak ez direlako, eta enpresak kostu hauek ordaintzea aurretik aurreikusten du.

KOSTU FINKOAK	
Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
Lokala	700
Webgunearen hostinga	6
Soldatak	6000
GUZTIRA	6706

KOSTU FINKOAK




Bigarrenik, kostu aldakorrak daude, ekoiztutako produktu edo zerbitzuen kopuruaren arabera aldatzen direnak. Gure enpresan honako hauek daude; argi eta konexio-sarea, erabilpenaren araberrakoak; kotxea, bezeroen eskaeren araberrakoak eta enpresa hornitzaileei erosten dizkiogun produktu-unitateak (alkoholimetroa), gure eskaeren araberrakoak.

Argi-sarea: 50€/hil. inguru
 Konexio-sarea: 25€/hil. inguru
 Kotxea(k): 15.000€/unit. inguru
 Alkoholimetroa: 30€/unit.

KOSTU ALDAKORRAK	
Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
Argia	50
Konexioa	25
Kotxea	15000
Alkoholimetroa	30
GUZTIRA	15105

KOSTU ALDAKORRAK




GUZTIZKO KOSTUAK

Hasierako kostuak: 4650€
 Kostu finkoak: 6706€
 Kostu aldakorrak: 15105€

GUZTIZKO KOSTUAK	
Kontzeptua	Zenbatekoa
Hasierakoak	4.650€
Finkoak	6.706€
Aldakorrak	15.105€

GUZTIZKO KOSTUAK



Gainera, kostuak murrizteko, hainbat teknika erabiliko ditu enpresak; hala nola, eskala ekonomikoa eta zabalkunde ekonomikoa.

Alde batetik, eskala ekonomikoari dagokionez, produktutako unitateen kopurua handitzean, kostuen murrizketa lortzen da. *Su ta ke*-n erosketa berean enpresa hornitzaileari produktu-kantitate handiagoa erosiko zaio eta merkeago aterako da; garraio-gastuak minimizatzen baitira.

Bestetik, zabalkunde ekonomikoa dago, hau da, baliabide berdinak erabiltzea produktu bat baino gehiago egiteko. Honek materialei etekin altuena ateratzeko balio du, haiek ez xahutuz.

